

ERABAKIA, 2023ko MAIATZAREN 22koa, EUSKARA, KULTURA ETA NAZIOARTEKOTZEAREN ARLOKO ERREKTOREORDEARENA, GRADUKO, MASTERREKO ETA DOKTOREGOKO IKASLEEK 2023-24 IKASTURTEAN ERASMUS+ PROGRAMAN IKASKETETARAKO MUGIKORTASUN LABURRAK EGITEKO OINARRIAK ONARTZEKO DENA.

Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen arloko errektoreordearen deialdi honek ezartzen ditu Erasmus+ programan ikasketetarako mugikortasun laburra egiteko baldintzak eta dirulaguntzak banatzeko modua, aintzat harturik Europako Batzordeak Hezkuntza Nazioartekotzeko Zerbitzu Espainiarraren bidez (SEPIE) emandako jarraibideak.

Kontuan izanik kreditua badagoela, KA131 2022 proiektuari loturiko diru-laguntza kontratuko Europako funtsetatik, eta ditudan eskumenen babesean, hauxe

ERABAKI DUT:

Lehenengoa: Onartzea eta argitaratzea UPV/EHUko graduko, masterreko eta doktoregoko ikasleek 2023-24 ikasturtean ikasketetarako mugikortasun laburra egiteko Erasmus+ deialdiaren oinarriak.

Bigarrena: Adjudikatuko diren plazen kopurua aurrekontuaren araberakoa izango da.

Hirugarrena: Administrazio bideari amaiera ematen dion erabaki honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkeztu ahal izango da, administrazio auzietarako epaitegietan, bi hilabeteko epean, erabaki hau argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita, aintzat harturik Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legea. Hala ere, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez dakiok erabakia eman duen organoari berari, hilabeteko epean, aintzat harturik Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikulua.

OINARRIAK

1. Deialdiaren xedea	2
2. Parte hartzeko baldintzak.....	3
2.1. Ikasleek bete beharreko baldintzak	3
2.2. Aurreikusitako jarduera	3
2.3. Iraupena eta egonaldia	4
2.4. Helmugak	4
3. Aurreikusitako finantzaketa	5
3.1. Finantzaketa Europako erkidegoko funtsen bidez	5
4. Eskaera egiteko modua	5
4.1. Eskaera eta nahitaezko dokumentazioa.....	5
4.2. Eskaerak aurkezteko epea eta modua	6
4.3. Eskaerak zuzentzea eta hobetzea.....	7
5. Hautapen prozedura	7
5.1 Onartzea edo uko egitea eta erreserba zerrenda	8
6. Parte hartzeko konpromisoak.....	9
6.1. Egonaldiaren aurretik.....	9
6.2. Egonaldiaren ondoren	9
7. Dirulaguntza ordaintzea	10
8. Aldaketak eta uko egitea	10
9. Ez-betetzeak eta itzulketak.....	10
Eranskinen zerrenda	11

1. Deialdiaren xedea

Deialdiaren xedea da laguntza ekonomikoak ematea UPV/EHUko graduako, masterreko eta doktoregoko ikasleei 2023-24 ikasturtean ikasketetarako egonaldi laburrak egiteko Erasmus+ programaren barruan.

Mugikortasun laburrak Erasmus+ 2021-27 programan eskainitako modalitate berri bat dira. Modalitate honen helburua da lankidetzazko online hezkuntza trukea erraztea eta nazioarteko mugikortasunerako sarbidea areagotzea, atzerrian eginiko egonaldiaren iraupena murriztuta.

Bat etorri Erasmus+ programaren lehentasunekin, mugikortasun laburrek erraztu egiten dute hainbat adinetako eta ingurune kultural, sozial eta ekonomikotako pertsonak programan parte hartzea, inpaktu kualitatiboa areagotuz eta aukera berdintasuna bermatuz.

Horregatik, mugikortasun konbinatua egin ahal izateaz gainera, programa intentsibo konbinatu (BIP) baten bidez, **iraupen luzeko mugikortasun fisiko bat egin ezin duten graduako edo masterreko ikasleek** (adibidez, beren ikasketa eremuagatik edo horretarako aukera gutxiago dituztelako) iraupen laburreko mugikortasun fisiko bat egin ahal izango dute, nahitaezko osagai birtual batekin konbinatuta.

Doktoregaien kasuan, iraupen laburreko mugikortasun fisiko laburrak egin ditzakete atzerrian, prestakuntza eta ikaskuntza premiei hobeto erantzuteko, Goi-mailako Hezkuntzako Pertsonala direnen aukera berdintasuna bermatuta.

Mugikortasun laburrak egingo dituzten ikasleek jaso ahal izango dituzte Erasmus+ programako [laguntza ekonomikoak](#), Hezkuntza Nazioartekotzeko Zerbitzu Espainiarrak (SEPIE) atzerrian eginiko egonaldi fisikorako zehaztutakoak.

2. Parte hartzeko baldintzak

2.1. Ikasleek bete beharreko baldintzak

2.1.1. **Eskaera egitean**, ikasleek matrikulatuta egon beharko dute UPV/EHUn. Mugikortasuna egingo duten ikasturtean, UPV/EHUn matrikulatuta ere egon beharko dute.

2.1.2. Egiaztatu egin beharko dute **gutxieneko hizkuntza ezagutza**, harrera erakundearen eskakizunen arabera.

2.1.3. Europar Batasuneko herrialde bateko nazionalitatea izango dute, edo bizi diren herrialdearen aitortza: errefuxiatua, aberrigabea, egoiliar iraunkorra, mugikortasuna egin bitartean indarrean egongo den bizileku baimena duen aldi baterako egoiliarra, legeria nazionalaren arabera.

UPV/EHUren nazioarteko mugikortasun araudiaren arabera, ezin izango dute parte hartu ikasle bisitariak, halakotzat harturik araudi horren 3.9 eta 8.4 artikuluetan zehaztutakoak.

2.1.4.- Ez dira hautagarriak izango:

- i. 2023-24 ikasturteko lehen mailako ikasleak;
- ii. 2023-24 ikasturtean beste mugikortasun bat egingo dutenak;
- iii. aurreko deialdietan zigortu dituztenak mugikortasun programen araudia ez betetzeagatik.

2.2. Aurreikusitako jarduera

2.2.1. Graduko eta masterreko ikasleen kasuan, mugikortasun hauek **konbinatzen dituzte 5-30 eguneko egonaldi fisiko bat** atzerriko unibertsitate batean **eta nahitaezko osagai birtual bat**. Osagai birtualaren eta mugikortasun fisikoaren konbinazioak 3 ECTS izango ditu gutxienez.

Doktoregoko ikasleen kasuan, osagai birtuala gomendagarria da, baina ez nahitaezkoa. Krediturik eman ezin denean, 3 ECTS kredituen ezaugarria hartu behar da lan kargarako gidatzat.

Mugikortasun konbinatuen mota honetan, **mugikortasun fisikoko** osagaiak aukera eman behar du modu esanguratsu batean elkarri eragiteko beste ikasle eta harrera erakundeko integrazio taldeekin, hezkuntza ikastaroetan parte hartzeaz gainera, eta haren edukia konektatuta egon behar du osagai birtualarekin, elkar indartuz.

Osagai birtualak erraztu egingo ditu lankidetzazko online hezkuntza trukea eta talde lana.

2.2.2. Iraupen laburreko mugikortasun fisiko bat egin ahal izango dute, nahitaezko osagai birtual batekin konbinatuta, iraupen luzeko mugikortasun fisiko bat egin ezin duten graduako edo masterreko ikasleek (adibidez, beren ikasketa eremuagatik edo horretarako aukera gutxiago dituztelako).

Doktoregaien kasuan, iraupen laburreko mugikortasun fisikoko egonaldiak egin ahal izango dituzte, atzerrian ikasketak egiteko.

2.2.3. Mugikortasun laburrak Erasmus+ programako modalitate berri bat dira, eta Erasmus+ modalitate gisa zenbatuko da programaren finantza mugak errespetatzeari dagokionez (12 hilabete gehien jota ikasketa zikloko). Hau da, ikasleen kasuan, mugikortasun fisikoaren iraupena (online denbora ez da zenbatzen) zenbatuko da Erasmus+ mugikortasun egun gisa, programako ezarritako gehieneko finantza kredituaren barruan.

2.3. Iraupena eta egonaldia

Mugikortasun fisikoak **bost (5) eta hogeita hamar (30) egun bitarteko iraupena** izango du. Osagai birtualaren iraupena ez da finkatzen.

Mugikortasun fisikoa 2023ko irailaren 1etik aurrera has daiteke, eta 2024ko uztailaren 31 baino lehen amaituta egon beharko du.

Nolanahi ere, mugikortasun fisikoa interesdunaren plaza esleitzen duen azken ebazpena argitaratu eta destinoko unibertsitateak onartu ondoren egin beharko da.

2.4. Helmugak

Interesdunek [beren ikastegiko mugikortasun koordinatzailearengana](#) edo, hala badagokio, Doktorego Eskolakoarengana (doke.nazioartekoa@ehu.eus) joko dute informazio bila, Erasmus+ erakunde arteko akordioa duten atzerriko unibertsitateei buruz eta unibertsitate horiekin mugikortasun laburra egiteko aukerari buruz.

UPV/EHUren eta helmuga unibertsitatearen arteko lankidetzak Erasmus+ erakunde arteko akordio baten babesa izan behar du.

Interesdunak jarduera bat aurkitzen badu akordiorik ez duen helmuga batean, ikastegiak edo Doktorego Eskolak negoziatu ahal izango du aurkeztutako eskabidean oinarrituta. Ikastegiek eta Doktorego Eskolak ezin dute ziurtatu helmuga unibertsitateak hitzarmen hori onartzea, ezta epe egokian erantzutea ere.

Ezin izango da mugikortasuna egin ez badago Erasmus+ erakunde arteko hitzarmenik bi unibertsitateen artean mugikortasuna egin AURRETIK.

3. Aurreikusitako finantzaketa

3.1. Finantzaketa Europako erkidegoko funtsen bidez

Erasmus+ programan mugikortasun labur bat egiteko plaza lortzeak berekin dakar SEPIEK ezarritako dirulaguntza eskuratzea, mugikortasun fisikoko aldirako. [Laguntza ekonomikoak](#) kontsulta daitezke Nazioarteko Harremanetarako Bulegoaren web orrian.

4. Eskaera egiteko modua

4.1. Eskaera eta nahitaezko dokumentazioa

Eskaerak indibidualak izango dira. Pertsona batek eskaera bakarra egin ahal izango du.

Eskaera egiteko erabiliko da erabaki honekin batera web orrian argitaratutako eredu normalizatua.

Hutsak eta akatsak zuzentzeko epearen ondoren ez dira aintzat hartuko osagabe jarraitzen duten eskaerak.

Eskaerarekin batera, dokumentu hauek aurkeztuko dira:

1. Eskaera inprimakia (1. eranskina).
2. NAN edo AIZren kopia. Europar Batasuneko beste herrialde bateko edo Europako Esparru Ekonomikoari buruzko Akordioan parte hartzen duen estatu bateko nazionalitatea duten pertsonak aurkeztuko dute pasaportearen edo tokian tokiko nortasun agiri baliokidea; gainerako herrialdeetako pertsonak, Atzeritarren Identifikazio Zenbakia (AIZ).
3. Laguntza kobratu nahi den aurrezki libretaren edo banku kontuaren titulartasun datuen kopia (**IBAN BARNE**). Nahitaez, laguntza eskatzen duen pertsonak izan beharko du aurrezki libretaren edo banku kontuaren titularrak.
4. Hizkuntzen ezagutza egiaztatzen duten ziurtagiri ofizialen kopia.

5. Hitzarmen Akademikoa (*Learning Agreement* (2. edo 3. eranskina)), ikasleak **(i)**, ikastegiko edo UPV/EHUko Doktorego Eskolako nazioarteko harremanen koordinatzaileak **(ii)** eta helmugako erakundeetako nazioarteko harremanen koordinatzaileak **(iii)** sinatuta.

Akordio akademikoa negoziatzeko orduan, beharrezkoa da baieztatzea bi unibertsitateek mugikortasun laburra egiteko aukera emango dutela. Baimen hori gabe, proposatutako mugikortasuna ezinezkoa da.

6. Graduko edo masterreko ikasleen kasuan: ikasketetarako iraupen luzeko mugikortasun fisikoetan ezin parte hartzearen arrazoiak azaltzen dituen txostena.
7. Aukera gutxien dituzten kolektibo dagozkien aurtengo laguntza gehigarriak egiaztatzen dituen dokumentu ofizialaren kopia, **hala badagokio**.
8. UPV/EHUren Buddy programan parte hartu izanaren ziurtagiriaren kopia, **hala badagokio**.

4.2. Eskaerak aurkezteko epea eta modua

Eskaerak egiteko epea zabalik egongo da 2024ko apirilaren 30a arte (egun hori barne), edo funtsak agortu arte.

Programan parte hartzeko eskaerak hautatzean, kontuan hartuko da sarrera erregistroko hurrenkera.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16. artikulua araber, aurkeztu beharko dira:

- Ahal dela, UPV/EHUren erregistro elektronikoa, <https://egoitza.ehu.eus/eu/registro-electronico> URL helbidean, eskaeraren "Hartzailea" eremuan hautatuz: **Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen arloko Errektoreordetza → Nazioarteko Harremanetarako Bulegoa (U02000247)**. Horretarako erabiliko da identifikazio elektronikoko sistemaren bat: a) Izenperen Erabiltzaile Ziurtagiri Digitala, b) UPV/EHUren Unibertsitate Txartela (Izenpe), c) NAN elektronikoa edo d) Diruaren eta Zerga Ziguaren Fabrika Nazionalaren ziurtagiria (FNMT-CERES).
- Gainera, eskaera aurkeztu ahal izango da: a) sektore publikoko beste edozein erakunderen erregistro elektronikoa, b) UPV/EHUko edo sektore publikoko beste edozein erakundetako erregistro arloko laguntza bulegoetan, gaitutako funtzionario publiko baten bidez, c) Correoseko bulegoetan, eta d) Espainiak atzerrian dituen ordezkaritza diplomatikoetan edo kontsuletxeetako bulegoetan.

UPV/EHUko erregistro arloko bulegoetan aurrez aurre aurkeztutako eskaerak eta dokumentuak digitalizatu egingo dira, espediente administratibo elektronikoa

sartzeko, eta originalak itzuliko zaizkio interesdunari, hark bere burua funtzionarioaren aurrean identifikatu eta egintza horretarako berariazko baimena eman ondoren, aintzat harturik UPV/EHUko idazkari nagusiaren 2021eko apirilaren 28ko erabakia, zeinaren bidez onartzen baita erregistro arloko laguntza bulegoei, UPV/EHUn gaitutako funtzionario publiko baten bidez eskabideak, idazkiak edo bestelako komunikazioak aurkezteari eta gaitutako funtzionario publikoen erregistroari buruzko jarraibidea.

Eskaera presentzialki aurkeztuz gero, helbide honetara joko da:

Mugikortasun laburreko Erasmus+ Mugikortasun deialdia
Bizkaiko Campuseko Nazioarteko Harremanetarako Bulegoa
Biblioteka eraikina 2 - Sarriena auzoa z/g
48940 Leioa (Bizkaia)

4.3. Eskaerak zuzentzea eta hobetzea

Eskaerak ez baditu betetzen 39/2015 Legearen 66. artikuluko baldintzak eta, hala badagokio, 67. artikulukoak, edota aplikagarria den legedi espezifikoa ezarritako beste batzuk, hamar eguneko epea emango zaio interesdunari hutsak zuzendu edo falta diren dokumentuak aurkezteko, eta adieraziko zaio ezen, hori egin ezean, eskaeran atzera egin duela ulertuko dela, dagokion erabakia eman ondoren, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68. artikuluan aurreikusitako moduan.

Akatsak zuzentzeko eskatzen zaien pertsonen erregistro elektronikoen bidez aurkeztuko dute eskatutako dokumentazioa, aurretik adierazitako baldintzetan.

5. Hautapen prozedura

Batzorde batek aztertuko ditu eskaerak, eta batzorde horretako kideak izango dira: Nazioarteko Mugikortasunaren arloko zuzendaria, Nazioarteko Harremanetako Zerbitzuko burua eta batzordearen idazkari lanak egingo dituen teknikari bat (hitza izango du, baina botorik ez).

Soilik ebaluatuko dira behar bezala aurkeztutako eskaerak, betiere egokiak badira eta deialdian jasotako helburuak badituzte.

Eskaera kopurua gehiegizkoa bada deialdiko funtsetarako, irizpide hauen arabera baloratuko dira:

1. Lehentasuna izango dute mugikortasun programetan inoiz parte hartu ez duten ikasleen eskaerek.
2. Bigarrenik, kontuan izango da eskatzaileen batez besteko nota UPV/EHUn. Hautapen irizpidea oinarrituko da merezimendu akademikoan, eta aintzat hartuko da horretarako eskatzaile bakoitzaren batez besteko nota. Buddy programan parte hartu dutela egiaztatzen duten eskatzaileen batez besteko notari 0,5 puntu gehituko zaizkio.

3. Berdinketa gertatuz gero, lehentasuna izango dute mugikortasuna eskatzen den ikasketetan kreditu kopuru handiagoa duten eskaerek.
4. Berdinketak jarraitzen badu, aukera gutxien dituzten ikasleen laguntza jaso ahal izateko egoeran dauden eskatzaileak izango du lehentasuna.
5. Berdinketak jarraitzen badu, plaza izango da [Buddy programan](#) parte hartu duen eskatzailearentzat.
6. Berdinketak jarraitzen badu, plaza izango da eskaeraren aurreko ikasturtean batez besteko nota handiago izan duenarentzat.

Nazioarteko Harremanetarako Batzordeak erabaki proposamen bat onartuko du hilabetero, aurreko hilabete naturalean jasotako eskaeren balorazioa eginez, deialdian parte hartzeko baldintzak betetzen direla eta eskatutako modalitaterako funtsak badaudela egiaztatu ondoren.

Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen arloko errektoreordeak, aintzat harturik batzordeak eginiko hautapena, Nazioarteko Harremanen web orrian argitaratzeko aginduko du onartutako mugikortasunen zerrenda, atzera botatakoena eta erreserban gelditu direnena.

Deialdi honetan aurreikusitako mugikortasunak emateko edo ukatzeko erabakiaren aurka, dagozkion errekurtsioak jarri ahal izango dira, indarrean dagoen legeriaren arabera.

5.1 Onartzea edo uko egitea eta erreserba zerrenda

Behin plaza adjudikatuta, 10 egun baliouduneko epea emango zaio interesdunari mugikortasuna onartzeko edo hari uko egiteko (4. eranskina), UPV/EHUko erregistro elektronikoan aurkeztutako inprimaki baten bidez, <https://egoitza.ehu.eus/eu/registro-electronico> URL helbidean, eskaeraren "Hartzailea" eremuan hautatuz: Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen arloko Errektoreordetza → Nazioarteko Harremanetarako Bulegoa (U02000247).

Plaza lortu ez duten pertsonen erreserba zerrenda argitaratu egingo da Nazioarteko Harremanen webgunean, eta uko egiteren bat gertatuko balitz, mezu elektroniko bat bidaliko zaie, aintzat harturik zerrenda horretako hurrenkera.

UPV/EHUk esleitutako plaza bat onartzeak ez du esan nahi helmugako unibertsitateak automatikoki onartzen duenik. Helmugako unibertsitatean onartzeko kudeaketa ikaslearen ardura izango da. Helmugako unibertsitateak onartu ezean, ezinezkoa da dirulaguntzak ematea.

6. Parte hartzeko konpromisoak

Deialdian hautatutako pertsonen konpromiso hauek hartuko dituzte:

6.1. Egonaldiaren aurretik

Hautatutako pertsonen helmugako unibertsitatearen onarpena kudeatu beharko dute.

Egonaldia hasi baino hamabost egun lehenago gutxienez, agiri hauek entregatzea, [Laguntza kobratzeko izapideak](#) dokumentuan adierazitakoaren arabera:

1. Dirulaguntza Hitzarmena (5. eranskina)
2. Bidaia aseguruaren kontratatu izanaren frogagiria, estalduren deskribapenarekin, eta ordainketarena.
3. Bidaia txartelen kopia bat, ibilbidea, datak eta zati bakoitzean erabilitako garraiobideak zehaztuz.

Mugikortasunean parte hartuko duen pertsonak bidaiako laguntza aseguru izango du, eta haren estalduren artean egongo dira gaixotasunagatiko (COVID-19a barne) edo istripuagatiko asistentzia medikoa eta farmazeutikoa, aberriratzea eta osasun lekualdaketa.

Bidaia aseguruaren kontratatzea nahitaezkoa da Erasmus+ programan, eta ezinbestekoa laguntza ekonomikoa jasotzeko. UPV/EHUk [IBILI-EHU](#) aseguru eskaintzen du. Ez da diruz lagunduko aseguru gabe eginiko mugikortasunik, ezta irten aurretik sinatutako Dirulaguntza Hitzarmenik ez duen mugikortasunik ere.

6.2. Egonaldiaren ondoren

Kitapena egiteko, agiri hauek aurkeztu beharko dira egonaldia amaitu eta hilabeteko epean:

1. Egonaldiaren amaierako txostena (6. eranskina), UPV/EHUren formatuan edo informazio bera jasoko duen harrera erakundearen beste formatu batean. Benetako jarduera egunak adieraziko dira. Ziurtagiria originala izango da eta ez du izango ez zirriborrorik ez zuzenketarik, eta harrera erakundearen dagokion unitatearen zuzendaritzaren sinadura eta zigilua izango ditu.
2. Erasmus+ ikaslearen amaierako txostena. Online egingo da, txostena egiteko gonbidapena jaso eta hurrengo 30 egun naturaletan. Txosten hori egin ezean, dirulaguntza itzultzeko eskatu ahal izango du Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen arloko Errektoreordetzak.

7. Dirulaguntza ordaintzea

Bi zatitan ordainduko da:

1. Lehen ordainketan, Europako laguntzaren % 70 jasoko da.
2. Bigarren ordainketa bat, jarduera egin ondoren Europako gainerako laguntzari dagokiona, egonaldiaren amaierako ziurtagiriak adierazten dituen daten arabera kalkulatu dena.

Bi ordainketen izapideak hasteko, ezinbestekoa izango da dagokion dokumentazioa [Laguntza kobratzeko izapideak](#) dokumentuan jasotako kontaktuetara bidaltzea.

8. Aldaketak eta uko egitea

Egonaldiak egingo dira horretarako baimendutako aldietan. Aurreikusitako datetan eragin dezakeen edozein aldaketa posta elektronikoz jakinarazi beharko da (nazioartekoak.mugikortasuna@ehu.eus), ahalik eta azkarren.

Adjudikatu den plaza bati uko egitea formalizatu egin beharko da Erregistro Elektronikoaren bidez (4. eranskina).

9. Ez-betetzeak eta itzulketak

Deialdiaren oinarriak edo epeak betetzen ez badira, edo datuak ezkutatu, aldatu edo manipulatu badira, ukatu, eten edo baliogabetu ahal izango da emandako dirulaguntza, eta jasotako kopuruak itzuli beharko dira.

Nazioarteko Harremanetarako Bulegoak beharrezkotzat jotzen dituen dokumentu guztiak eska diezazkieke laguntza lortu duten pertsoneri eta harrera unibertsitateei, mugikortasunak deialdiaren helburuak bete dituela egiaztatzeko.

Egonalditik behar baino lehen itzuliz gero, horren berri eman eta arrazoia azaldu beharko da. Errektoreordetzak uko egiteek oinarriak baduten aztertuko du.

Hori horrela, honako hauek baino ez dira hartuko salbuesteko kausa larritzat: ikaslearen edo haren senideen istripu edo gaixotasun inhabilitatzailea (odol ahaidetasunezko senideak, zuzenean lehen mailara arte edo zeharka bigarren mailara arte), edo legez eraturako bikotekideenak (ezkontza, izatezko bikotea, bizikidetza frogatua edo errektoreordearen iritziz bizikidetza behar bezala adierazten duen beste moduren bat). Egoera horiek frogatzeko, zuzenbidean oinarritutako frogabideak aurkeztu beharko dira. Alegazioak onartzen ez badira, eta zuzenbidean jar daitezkeen errekurtsioei kalterik egin gabe, ikasleak ezin izango du parte hartu nazioarteko mugikortasun programetan hurrengo ikasturtean.

Baldin eta laguntzen onuradunak azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak onartutako Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bateginaren 53.1 artikulua kasuren batean badaude, edo deialdi honetan edota dirulaguntza emateko erabakian ezarritako baldintzaren bat betetzen ez badute, Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen arloko

errektoreordeak, dagokion erabakiaren bidez, galdutzat emango du ordaintzeke dauden zenbatekoak jasotzeko eskubidea eta, hala badagokio, itzultzeko betebeharra ezarriko du, alde batera utzi gabe bidezkoak diren gainerako egintzak, bat etorritik abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan ezarritakoarekin, zeinaren bidez arautzen den dirulaguntzen bermeen eta itzulketen araubide orokorra eta ezartzen diren haien kudeaketan parte hartzen duten Erakunde Kolaboratzaileen baldintzak, araubidea eta betebeharrak.

Leioan, 2023ko maiatzaren 22an.

M. Juncal Gutierrez Mangado

Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen arloko errektoreordea

Eranskinen zerrenda

- | | |
|--------------|--|
| 1. eranskina | Eskaera orria |
| 2. eranskina | Gradu eta Masterrera Hitzarmen Akademikoa
(<i>Learning Agreement</i>) |
| 3. eranskina | Doktoregorako Hitzarmen Akademikoa (<i>Learning Agreement</i>) |
| 4. eranskina | Plaza onartzeko edo hari uko egiteko inprimakia |
| 5. eranskina | Dirulaguntza hitzarmena |
| 6. eranskina | Egonaldiaren amaierako txostena |